

X. OTROS USOS

FLUVIALES.

1. IBAIETAN AISIALDIRAKO AUKERA.

Garai batean orbanak, aparra eta bestelako hondakinak ikusten ziren, egun arrainak eta antzekoak ikustea kasu batzuetan harrigarria izateaz gain, itxaropentsua ere bada askorentzat.

Kutsadurak murrizteak zenbait ibai edo ibai zati bainurako aprobetxatzea eragin du. Ibaiek hobera egiteak, halaber bestelako ekimenen sorrera ere bultzatu du.

Proiektu horren bultzatzaileek 600 metroko tarte bat errekuperatu nahi dute nabigaziorako Usabal eta Olamoin artean, Oria ibaian eta horretarako presa bat eraikitzea aurre ikusi dute. Obra hori esker arraunean egiteko aukera egongo litzateke ibaiaren eremu horretan.

2. ATURRI IBAIAREN ITSAS ETA KULTUR ABERASTASUNA BERRESKURATU NAHI DUTE.

Baionan bokalea duen ibaiak Saint Sever Landetako herria iritsi arte 126 kilometroko luzera dauka. Eta, egun, ibai horretan hirurogeita hamar bat arrantzale daude.

Urte askotan izandako itsasaldeko aberastasuna ibaiaren ertzetan eta bertan bizi diren herritarren oroizpenetan ageri da. Escumayres Talasta (itsasoko piratak) izeneko Aiherrako elkarteak, baina bereziki bere kidea den Philippe Saint-Arroman-ek ondare hori berreskuratzea du helburu eta, horretarako, egitasmo berezia bultzatu du. “Aturri oso ibai aberatsa da kulturaren eta itsasoaren munduan. Berezitasun hori ikusiz, lekuko herritarrentzat historia hori berreskuratu behar genuen iruditu zaigu” esan zuen Philippe.

Horrenbestez, Aturriko herritarrak mendez mende gizarte itxi batean bizi izan zirela gogoratu zirela gogoratu zuen. “edozein lekutara joateko itsasontzia hartzera behartuta zeuden. Eta, Peyrorade herriko merkatura joateko ere ibaitik joaten ziren. Ibaiak beren, eguneroko bizia baldintzatzen ziren” esan zuen Philippe-k.

Hori guztia Escumayres Talasta elkarteko kideak garai hori ezagutu duten Aturri ibaiaren ertzeko biztanleen lekukotasunak bilduz ikasi du.

2.1 Kanalen saretik kanpo.

Aturri ibaiak sorturiko gizarte txiki horren berezitasuna bizitzeko erarekin batera, itsasontzietan ageri zen.

Egun Aturri gutxi baliatua bada ere, arrantzaletan batera garraio jarduera nagusitu da luzaz. Arrantzak jarraitu arren, garraioa duela berrogei bat urte eten zen.

Bideak eta trenbideak sortu aurretik, merkataritzako garraio guztia ibai eta itsasotik egiten zen.

Portu batetik bestera egurra, ardoa, mineralak, zerealak eta eraikuntzarako harriak eramaten zituzten.

Baionako portua berri zutenean harri eta egur zama handiak garraiatu zituzten Aturri ibaitik. Horrek bertako jarduera areagotu zuen. 1920. urtean garraioa desagertzen hasi zen.

XIX. mendean aitzin, herrien arteko merkataritza ahal bezain bat sustatzeko ibai nagusietan kanalak eraiki zituzten. Hala gertatu zen, bederen, egungo Estatu frantseseko lurraldean kokatuta dauden ibai gehienetan. Aturrin ez zen horrelakorik egin.

“Ibaia ez da sekula kanalen sareari lotuta egon. Beraz, bertako herritarrek bakartasunean bizi dira beti. Horrela berezko teknikak garatzera behartu ditu” esan zuen Philippe.

“Pirogetatik XIX. mendean agerturiko Couralin edo Gubarak itsasontzietan artea erabiltzeko teknika berdinak aurkitzen dira. Teknika horiek tresneriaren erabilpenean eta baita itsasontziak egiteko baliaturiko piezetan ageri da” esan zuen.

Azken urteotan, Aturri ibaia zeharkatzen aritu da eraikuntza mota horiek azken adibideak bilatzeko.

Pirogekin hasiz, Bachets, Chalands, Tilholes eta azkenik Couralin itsasontziek zeharkatu dute Aturri mendez mende. Couralin izenekoak egungo ibaiako arrantzaleek baliatzen dituzte oraindik.

“Oraingoak motorrarekin ibiltzen dira, eta burdinezkoak izaten dira”.

2.2 Couralin berreskuratu.

Zurgina izanik, egurrezko Couralin horiek berreskuratzea erabaki zuen Philippe-k. “Gutxi geratzen dira, eta gehienak ondoko urteetan desagertu dira. Ontzi tradizional horiek berpiztu nahi izan ditut” argitu zuen.

Couralin-ek 4,70 metroko luzaera du, eta Aturrin izandako ontzi txikiena da. Azpiko aldea leuna da eta aurreko aldea, aldiz, gibelegoa baino hertsia da.

Gaur egun mota bereko arrantzarako erabiltzen dituzten ibaiko arrantzaleek. Formarekin batera beste berezitasun bat dauka ontzi horrek.

Philippe Saint-Arroman-ek horrelako ontzia eraiki du. Egurrez egin da, arraunekin gidatzen da eta hiru lagun eramaten ahal ditu. Hamabost urte Aiherran zurgina izan eta, lan hori bertan behera utzi eta itsasontziak nola eraikitzen ziren ikastera joan zen. Bederatzi hilabeteko ontzigintza ikastaroa egin zuen.

Egurrezko ontzi horrekin Aturri ibaia arraunez zeharkatzeaz gain, guztiek ontzia egiteko eskubidea dutela ere aldarrikatu du.

2.3. Uretan jarri.

Aturri ibaiaren ertzak kolorez apainduko dituen Couralin 4, 70 metroko itsasontzi tradizionala, botako dute uretara Escumayres Talasta elkarteko kideek.

Egun hori festa handia izatea nahi duenez, lekuko marinel esagunetarikoa gonbidatu du. Proiektua ez du horretan utziko. Lehen eredu hori bukatu bezain laster, Aturri ertzean mota bereko mota bereko ontziak eraikitzeke gune bat bilatzen arituko da.

Bestalde, bera bezala beste lan mota bat ikasteko gogoia duten langileak ikastaroak egiten ahalko dituzte bertan.

Hala ere, duela bi urte abiatutako ametsa aurrera darama zurginak.